



### Txistua

Euskaldunen musika-instrumentuen artean ezagunena "txistua eta danbolina" binomioa da, eta azken bostehun urteetan zehar gure herrietako plazetako dibertsioaren ardatz gisa agertzen da jasota dokumentuetan. Azken mendeetan zehar, txistularia "profesionala" izan da eta, herriaren tamainaren arabera, udal nominan agertzen zen, edo jai eta ospakizun jakinetan jotzeko kontratatzen zuten.



### San Roke Pipaonen (Araba)

Abuztuaren 15eko gauean, suen inguruan, "Ezkila Frailea" joko-dantza interpretatzen dute. Hanka bat bilduta eta ilara luze batean gerritik helduta, gidatzen dituenaren erritmoari jarraituz doaz aurrerantz, su emandako adar bati zipil-tzen saiatur, "al capuchin..." abesten duten bitartean. San Roke egunean, abuztuaren 16an, prozesioaren ondoren gaitaren eta danborraren soinuaz dantzatzen dituzte bi kriskitin-dantza, hiru makil-dantza eta zinta-dantza bat. Dantza horiek baztertuta egon ziren ingurua jendez hustuta geratu zenean; orain, zorionez, berreskuratu egin dira etorkizunerako.



# DANTZA TRADIZIONALA ETA MUSIKA

*Euskal Herriko dantza tradizionala erabat errotuta dagoen eta garrantzi handia duen ekintza soziala izan da, eta da. Gizartearen eta elizaren inguruko ekintzei lotuta, dantzaren presentzia agurraren eta erreberentziaren seinale da. Euskal Herriko dantzak hiru talde handitan antola ditzakegu: Taldekako ezpata-dantzak, Taldekako dantzak biribil irekian eta Dantzak aurrez aurreko edo norgehiagoka aritzeko bi ilaratan. Beste batzuk ere badira, sailkatzen zailagoak, esate baterako Inauterietan, Gorpuzti egunean eta abar dantzatzen direnak.*

### TALDEKAKO EZPATA-DANTZAK

Oso ezagunak ziren XVI. et XVIII. mendeetan, eta jaietan eta pertsona famatuak nahiz errege-erreginak etortzen zirenean dantzatzen ziren. Bere egitura ia ez da aldatu denboran zehar; dantzarien ilarak, zuriz jantzita eta kapitain batek gidatuta, zubiak eta arkuak kateatzen dituztelarik. Legazpin (Gipuzkoa), maiatzaren 3an, XVII. mendeko ezpata-dantza interpretatzen dute; Zumarragan (Gipuzkoa), uztailaren 2an, Ama Birjinaren aurrean dantzatzen dute ezpata-dantza, Antigua ermitan; Deban (Gipuzkoa), abuztuaren 16an, San Roke egunean, prozesioan zehar dantzatzen dute. Tolosan (Gipuzkoa), ekainaren 24an, San Joango pordon-dantzan alabardak erabiltzen dituzte ezpaten ordez, eta Lanestosako uztai-dantzan, (Bizkaia), abuztuaren 5ean, Ama Birjinaren prozesioan dantzatzen dena, uztai loredunek ordezkatu zituzten ezpatak. Markina Xemeingo (Bizkaia) ezpata-dantza ikusgarria eta interesgarria irailaren 29an dantzatzen da, Markina Xemeingo ermitan, Arretxinagan.

### BI ILARAKO DANTZAK AURREZ AURRE EDO NORGEHIAGOKA

Talde honen barruan sartzen dira Durangaldeko (Bizkaia) "Dantzari Dantza", Gipuzkoako "Brokel Dantza" eta Arabako Errioxako dantza batzuk. Dantza hauetan kontrako bi bando norgehiagoka aritzen dira, makila, uztai, ezpata eta abarrez kolpeka.

"Dantzari Dantza" herri hauetan dantzatzen da: Iurretan (Bizkaia) (irailaren 29an), Berrizen (Bizkaia) (ekainaren 29an eta uztailaren 2an), Mañarian (Bizkaia) (abuztuaren 15ean), Garain (Bizkaia) (uztailaren 25ean eta 26an) eta Abadiñon (Bizkaia) (maiatzaren 15ean) eta 8 dantzak osatzen dute.

Gipuzkoako "Brokel Dantza" ikusteko folklore-taldeetara jo beharko dugu. Eta aldaera batzuk ere badira, dantza honek urteetan zehar aldaketak eta gehikuntzak izan dituelako; Dantza hauek Berastegin (abuztuaren 10ean), Lizartzan inauterietan eta Antzuolan ikusi ahal izango ditugu.

Arabian, antzeko zikloak mantentzen dira, esate baterako, Elciegion (irailaren 8an) eta Uribarrin, San Torkuato egunean (maiatzaren 15ean) dantzaten den "makila-dantza". Aipatzekoak dira baita ere Pipaongo "trokeatuak", San Roke jaietan dantzaten direnak eta Laguardiako zikloa, San Joanetan dantzaten dena. Oñatiko (Gipuzkoa) "Korpus Dantzak" ere ikusgarriak dira.



#### GIZON-EMAKUMEZKOEN TALDEKO DANTZAK ILARA BATEAN EDO BITAN

Euskal Herrian gehien zabalduko egitura da: "Aurreku", "Gizon Dantza" edo "Soka Dantza" izenez ezagutzen dena. Adiera zuzenak "Gizon Dantza" eta "Soka Dantza" dira. Hala eta guztiz ere, ezagunena "Aurreku" da, soka dagoen lehenengo dantzariarengandik hartzen baitu izena, trebeena eta dantza zuzentzeaz arduratzen dena. Dantza honen egitura antzinakoa eta simplea da, eta gure herrietako ia jai guztietan dantzaten da.

Gipuzkoan "Gizon Dantza" desberdinak topatuko ditugu. Aipatzekoa da San Joan bezperan Donostiako Konstituzio plazan dantzaten dena. Hona hemen beste batzuk, Legazpikoa (maiatzaren 3a), Oñatikoa (Gorpuzti eguna), Abaltzisketakoa (ekainaren 23ko gaua), Tolosakoa (San Joan eguna), Zumarragakoa (uztailaren 2a) eta Aretxabaletakoa. Ordizian, uztailaren 26an, Santa Ana egunean, "Santanoen Aurreku" ikusi ahal izango dugu urtean zehar ezkondu diren bikoteek dantzatua.

Bizkaian, mota horretako dantzak honako herri hauetan ikusi ahal izango ditugu oraindik: Abadiño (maiatzaren 15ean), Berriz (ekainaren 29an eta uztailaren 2an), Forua (uztailaren 31n, San Ignazio), Garai (uztailaren 25, 26 eta 31n), Gemika-Lumo (Inauterietako Igandea), Iurreta (irailaren 29an eta hurrengo igandean), Mañaria (abuztuaren 15ean), Markina (abuztuaren 29a eta 30a) eta Elorrio (urriaren lehenengo igandea). Emakumezkoek dantzaten duten bertsioak ere badira, esate baterako Lekeition eta Garain, eta hurrenez hurren ekainaren 29an eta uztailaren 26an dantzaten dira.

Arabian ere badira dantza honen aldaera batzuk, adibidez San Isidro Dantza (maiatzaren 14a) Añana-Gesaltzan eta Paganosen, Laguardiako auzoan. Bertan, otsailaren 3an eta bezperan, "Txulalai" ezaguna edo "Marmarisola" dantzaten dira. Era berean, "Soka Dantza", Maeztun (ekainaren 17an), eta Gasteizen (abuztuaren 5ean), Andre Maria Zuriaren egunean dantzaten da.

#### BESTE DANTZA BATZUK

Euskal Herriko Inauterietan, diru-bilketak, pertsonaia nabarmenak, janari handiak eta dantzak elementu garrantzitsuenak eta arruntenak dira. Inauterietako dantza adierazgarriena "Jorrai Dantza" da, "Zagi Dantza" izenez ere ezagutzen dena. Markinan (Bizkaia), inauterietan "Jorrai Dantzarekin" ospatzen dira, hartza bat eta bere hezitzailea lagun dituztela. Inauterietako beste dantza bat "Azeri Dantza" da. Gaur egun Adunan (Gipuzkoa) mantentzen da eta abuztuaren 15ean dantzaten da. Oria-Lasarte eta Antzuolan (Gipuzkoa) "Sorgin Dantza" mantentzen dute, eta Inauterietako Igandean dantzaten da.

Arabian, dantza batzuk prozesioetan zehar dantzaten dira, esate baterako "Zaindarien Dantza" Oyón-Oionen (urtarrilaren 21ean eta 22an), "San Roke Dantza" Bastidan, Ekoran Bercijanako Ama Birjinaren ohorez egiten den dantza (maiatzaren 12an) eta Pipaongo "Kriskitin Dantza".

Banakako dantzetatik ezagunena "Kaixarranka" da, San Pedro egunean, uztailaren 28an Lekeition (Bizkaia) dantzaten dena.



#### Txalaparta

*Euskal Herriko tresna berezietako bat da. Txalaparta jatorriz ez da musika-instrumentua, komunikaziorako tresna baizik. Txalaparta taula desberdinez osatuta dago, bi makilez erritmoari jarraituz kolpatzen diren euskarri batzuen gainean jartzen direnak, "morse sistema" antzeko bat, alegia. Taularen zonaren eta kolpatzen den indarraren arabera, soinua desberdina izango da, eta perkusioaren gero eta abiadura azkarragoarekin konbinatuta eta bi interpretariek bikoiztuta, soinu dardaratia eta ikusgarria sorrazten du.*



#### Alboka

*Instrumentu hau artzainen kulturaren ingurunean mantendu da; Gorbea, Aizkorri, Aralar eta Urbasa izan dira bere azken zokoa. Honako hauek dira bere osagaiak: kanaberazko bi soinu-tutu; eskuinekoa 3 zulorekin eta ezkerrekoa 5 zulorekin, kanaberazko bi zotz tutuei gehituta, eta adarrez egindako bi pieza, bi aldeetan jartzen direnak, bata, ahoko antzera, eta bestea, soinu-pabilioi antzera.*

Ezpata-dantza (Legazpi)